



PARTE HARTZEKO GIDA

*Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalaren
Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena*



Ezquiaga. Arquitectura, Sociedad y Territorio. S.L.

-

Herritarren Partaidetzarako Gida idaztzi eta diseinatzen duen taldea:

Thais Ibarrondo **Canicca. Arquitectura, Diseño y Urbanismo**

Carlos Muñoz **Canicca. Arquitectura, Diseño y Urbanismo**

Ainhoa Ezquiaga **Ezquiaga. Arquitectura, Sociedad y Territorio**

-

2022

Parte Hartzeko Gida

Araba Erdialdeko *Eremu Funtzionalaren*
Lurralde Plan Partzialaren *berrikuspena*



Dokumentu honek, Herritarrek Parte hartzeko Programarekin batera, Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala (LPP) berrikusteko prozesuarekin batera irekiko den partaidetza-etapa zehazten du.

Parte hartzeko Gida honen helburuak dira: parte-hartzeari buruzko kontzeptu orokor batzuk sartzea, eta LPParen berrikuspenaren Aurrerapen-dokumentuan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko moduari buruzko orientazioa ematea. Bestalde, gida honetan berrikuspen-proposamenaren laburpen bat jaso dugu; horrek Aurrerapen-dokumentua errazago ulertzea ahalbidetuko du. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrerapen-dokumentu osoa [Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren](#) webgunean eta Eusko Jaurlaritzaren [Irekia](#) webgunean ere kontsulta dezakezue. Horietan, parte hartzeko eta dokumentuari ekarpenak egiteko bideei buruzko informazio gehiago aurkituko duzue.

Ez ahaztu sare sozialen bidez ere izan dezakezula nobedade guztien berri. Gure profila [Twitter](#)-en eta [Facebook](#)-en Lurraldea da. Jarrai iezaguzu!

Informatuta egon zaitezke *hashtag* hauen bidez:

#LPP_ArabaErdialdea_aurrerapena
#PTP_AlavaCentral_avance

ÍNDICE

1. SARRERA	6
1.1. Araba Erdialdeko Lurralde Planaren berrikuspena	6
1.2. Zer da Lurralde Plan Partziala (LPP) eta zergatik berrikusten da Araba Erdialdekoa?	7
1.3. Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko faseak.	8
2. HERRITARREN PARTE-HARTZEA	10
2.1. Zer da herritarren parte-hartzea?	10
2.2. Parte-hartzearen garrantzia lurraldearen eraikuntzan	11
2.3. Helburuak, mugak eta erretornuak	13
3. NOLA HAR DEZAKET PARTE?	14
3.1. Parte hartzeko programaren mugarriak	14
3.2. Non eta noiz?	18
4. PROPOSAMENAREN LABURPENA	20
4.1. Funtsezko kontzeptu batzuk	21
4.2. Diagnostikoa: nola dago Araba Erdialdea gaur egun?	23
4.3. Lurraldearen erronkak: Zer geratzen zaigu aurretik?	25
4.4. Lurralde-eredu berriaren estrategiak: nola proposatzen dugu hori egitea?	30
4.5. Ahaztu ezin ditugun kontuak eta lurraldea eraikitzen dutenak	38

1 Sarrera

1.1. Araba Erdialdeko Lurralde Planaren berrikuspena

2021eko martxoaren 24an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala (aurrerantzean Araba Erdialdeko LPP) berrikusteko prozedurari hasiera ematea onartu zuen; aipatu LPPa 2004ko abenduaren 28an onartu zen. Berrikuspen hori Eusko Jaurlaritzaren (Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila) eta Arabako Foru Aldundiaren (Ingurumen eta Hirigintza Saila) arteko lankidetzeta-hitzarmen bati esker gauzatu da, helburua izanik Araba Erdialdeko eta Arabako Errioxako lurralde-plan partzialak berrikusteko dokumentuak egitea.

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspena Araba Erdialdeko lurralde-estrategia berri bat ezartzeko prozesua da, haren garapena gizarte-ikuspegi parte-hartzaitik ulertzen duena. Proiektua, bere osotasunean, diseinatu da berrikuspena definitzean aurrera egingo duten administrazio-izapideekin batera gizartearen parte-hartzeari lotutako mugarriak gehitu daitezen, mugarri horiek behin betiko dokumentuari gizarte-sektoreetako ikaskuntzak, esperientziak eta begiradak gehitzetzeko aukera eman dezaten.

1.2. Zer da Lurralde Plan Partziala (LPP) eta zergatik berrikusten da Araba Erdialdekoa?

Lurralde Plan Partziala (LPP) zer den ondo ulertu ahal izateko, aurrez bi kontzeptu argitu beharko lirateke: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) eta Lurralde Plan Sektorialak (LPS).

+ Zer dira LAGak?

LAGak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak dira, **Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-estrategia definitzen duen erregelamendua**. Erregelamendu horren bidez, besteak beste, honako hauek zehazten dira: natura-eremuen babesa, bizitegi- edo industria-eremu handien kokapena, azpiegitura handi batzuen gutxi gorabeherako trazadura (bideak, errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak), baita, ordea, eta oro har, politika publikoen zuzendaritza landa-eremuetan eta hiri-eremuetan, eta natura-baliabideen kudeaketa ere.

+ Zer dira LPSak?

LPSak, Lurralde Plan Sektorialak, **LAGak garatzeko landutako planak dira, eta gai jakin bat zehatzago definitzeko erabiltzen dira**. Nekazaritzako eta basogintzako planak, ibaiak eta errekek antolatzeak, energiakoak, ekonomia-jardueretarako, hondakinen azpiegituretarako, bizikleta-bideetarako, errepideetarako, portuetarako eta bestelakoetarako lurzorua sortzeko plan publikoak egon daitezke.

+ Eta orain bai... Zer da Lurralde Plan Partzial bat (LPP)?


Lurralde Plan Partziala (LPP) **eremu geografiko zehatz baten edo eremu funtzional baten lurralde-garapenaren bidea definitzen duen dokumentua da**; kasu honetan, Araba Erdialdeari dagokiona. LPPak Euskal Autonomia Erkidegoko LAGean eta LPSetan xedatutakoa zehaztu eta zabaldu behar du, eta udalaz gaindiko gida izan behar du udal bakoitzak idatziko dituen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) idazteko.


+ Zergatik berrikusten da Araba Erdialdeko LPPa?

Gaur egun indarrean dagoen Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala 2004an onartu zen. Alabaina, orduetik **Araba eta mundua aldatu egin dira, eta lurraldearen eta bertako biztanleen beharrak ere aldatu egin dira**. LPPa berrikustea proposatu da Araba Erdialdearen garapenaren ikuspegia aldatzeko aukera emango duen agertoki berri bat izan dadin, horrela, kontzeptu eta balio berriak ahalbidetzeko. Azterketa horren helburua Araba Erdialdean bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzea izango da.

1.3. Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko faseak

Lurralde Plan Partzial bat berrikusteko, planak xede duen arloa asko aztertu behar da; beraz, haren definizio-prozesuak, berrikusteko prozesuak bezala, **hainbat urrats behar ditu, arian-arian behin betiko dokumentu baten oinarriak finkatzeko**. Horrela, herritarren parte-hartzea prozesu osoan zehar eman ahal izatea lortzen da. Jarraian, prozesu horrek aurreikusten dituen faseak zehazten dira:





2. Herritarren Parte-Hartzea

2.1. Zer da herritarren parte-hartzea?

Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak zehazten duen bezala, herritarren parte-hartzea prozesu bat, eskubide bat eta betebeharrak bat da, baita jarrera bat ere, eta honako ideia hauek ezartzen ditu:

Ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiborako prozesu bat da. Harremanak, erantzunak, ekintzak eta abar eraldatu nahi ditu, pertsona guztiei espazioa eta hitza emanez balio publikoaren sorkuntzan beren erantzukizuna eta eragiteko ahalmena balia dezaten.

Parte-hartzea eskubide bat ere bada; izan ere, **pertsona guztiek, bazterketarik gabe, parte hartu ahal izan behar dute** eta eragiten dieten jarduera eta erabaki publikoetan aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dute. Parte hartzea inoiz baino eskuragarriagoa eta beharrezkoagoa den une hauetan, parte-hartzea ulertu behar da guztion ongizatea lortzera bideratutako herritarren betebeharrak gisa ere.

Parte-hartzea gaur egun borondatezkoa eta desiratua izanik, oso lotuta dago jarrera bati, parte hartzeak **autonomia, askatasuna eta erantzukizuna eskatzen baititu**. Beraz, halakorik ez badago, norbaitek parte hartu nahi ez izatea onartu beharko litzateke. Eta muturrera eramanda, partetik ez hartzea ere parte hartzeko modu bat izan daiteke.

Ezinbestekoa da parte-hartzea hausnartzeko, ikasteko eta eztabaidatzeko gune kolektibo eta konplexu gisa ulertzea, planteatutako erronketarako estrategiak eta irtenbideak bilatzeko gune gisa. Xedea da estrategia eta irtenbide horiek gizarte osoari edo horiek garatzen diren inguruneari mesede egitea, pertsona edo talde zehatzen interes partikularrei erantzutetik aldentuz.

2.2. Parte-hartzearen garrantzia lurraldearen eraikuntzan

Ikuspegi parte-hartzaileak **pertsonen funtsezko premiak islatzen ditu, baita gizarte-antolaketaaren esperientzia eta modalitate berezkoenen balioa ere**. Lurralde-plangintza eta -kudeaketa partekatuak eta efizienteak egingarriak dira parte hartu duten pertsona guztiek erakutsitako inplikazio-mailarekin; izan ere, hainbat mailatan jardunez, lurraldearen garapen jasangarriko ere erabakigarriak dira.

Lurralde Plan Partzialak herritarren parte-hartzea eta gardentasuna bermatu beharko ditu, eta maila anitzeko gobernantza bultzatu beharko du lurraldea diseinatzeko prozesuetan. Hirigintza-araudiak maila formalean aitortzen du parte-hartzea, baina beharrezkoa da lurraldeen kudeaketarekin zerikusia duten gaitan herritarrek parte hartzeko benetako kultura batera sortzea. Hainbat arrazoik justifikatzen dituzte herritarrek lurraldearen diseinuan parte hartzeko beharra eta aukera. Garrantzitsuena herritarrek, gobernu-sistema demokratikoetan, politika publikoko gai guztietan eta horien artean, zalantzarik gabe, hirigintza- edo lurralde-plangintzan ahots propioa adierazteko duten eskubidea da. Horrez gain, plangintzaren

bideragarritasunari eta kalitateari zuzenean eragiten dieten onurak daude:

- + Lurralde batean bizi diren pertsonak informazio-iturri ordezkazina dira,** administrazioek alde batera utzi ez dezaketen zuzeneko esperientziaren emaitza. Herritarren ideiak gehitzeak plangintza aberastea eta kalitate teknikoa hobetzea dakartza.
- + Plangintza lantzeko prozesu osoan parte hartzeak murriztu egiten du planak onartu ondoren gatazkak izateko probabilitatea;** horrek planak irauten eta egonkor izaten laguntzen du. Ildo horretan, parte-hartzeari emandako dedikazioan, denboran eta kostu ekonomikoan egindako ahalegina onuragarria da epe ertain eta luzean.
- + Parte-hartzeak plangintzaren ardura duten administrazioekiko herritarren konfiantza indartzen du.** Hezkuntza-prozesu bat ere bada, bi zentzutan: alde batetik, parte-hartzeak herritarrek hezten ditu beren komunitatearen arazoei buruz eta arazo horiek modu fidagarrian konpontzeko plangintzak duen gaitasunari buruz, eta, bestetik, gobernu-estiloa aldatzea sustatzen du, gobernu hori irekiagoa, arduratsuagoa eta eraginkorragoa bihurtuz.
- + Herritarren parte-hartzeak, halaber, komunitate eta horretako kide izatearen sentimendua indartzen du.** Parte-hartze aktiboak ematen duen esperientziak herritarren eta horien eta administrazioen arteko lankidetzak sustatzen du, eta plangintza-tresnekiko eta horiek gauzatzearekiko gogobetetze-maila handitzen du.
- + Azkenik, herritarren parte-hartzea garrantzitsua da hirigintza-legeria indartzeko; izan ere, haien lurraldeko erabakiekiko konpromisoa duten herritarrek bermatu egiten dute plangintzako araudiak eta zehaztapenak behar bezala aplikatzen direla.**

¿ZER DA PARTE-HARTZEA?



¿ZER EZ DA PARTE-HARTZEA?

EZ DA NORABIDE BAKARREKOA

- ✗ Ez da nik zer nahi dudana galdetzea
- ✗ Ez da erantzun zuzena izatea
- ✗ Ez da hondatutakoa konpontzea
- ✗ Ez da iritzia edo aholkua eskatzea, ez iritzia ematea ere
- ✗ Ez da galderei erantzutea soilik

EZ DA MAKILAJE-EKINTZA BAT

- ✗ Ez da maniobra politiko bat
- ✗ Ez da manipulazioa
- ✗ Ez da partiduen motibazioek herritarren instrumentalizazioa
- ✗ Ez da kosmetika-eraketa bat, erakusleho bat...
- ✗ Ez da propaganda
- ✗ Ez da segiziozaleasuna
- ✗ Ez da populismoa

EZ DA DESOREKAK SORTZEA

- ✗ Ez da kontzesio bat
- ✗ Ez da inposaketa bat
- ✗ Ez da botere-erlazio bat
- ✗ Ez da delegazioa
- ✗ Ez da jada hartutako erabakiak justifikazioa
- ✗ Ez da inposazioa
- ✗ Ez da kontsentsuaren bilaketa obsesiboa
- ✗ Ez da noranzko bakarrekia

EZ DA ESPONTANEOA

- ✗ Ez da araurik gabeko prozesua
- ✗ Ez da jardura zehatz eta puntual bat
- ✗ Ez da zentzua eta mugak argi ez dituen prozesu batean sartzea
- ✗ Ez da itzaropen faltsuak sortzea

EZ DA MODA BAT

- ✗ Ez da moda bat
- ✗ Ez da marketina, ezta publizitatea ere
- ✗ Ez da iritzi-kultura
- ✗ Ez da prozesu elitista bat
- ✗ Ez da administrazioak sortutako zerbait
- ✗ Ez da (soilik) demokrazia zuzena, ezta biltzar bat ere
- ✗ Ez da inoren jabetzakoa, ez inongo partidu politikorena ere
- ✗ Ez da burokrazia, ez dira izapideak

EZ DA GAUZA SINPLE BAT

- ✗ Ez da sinplea, konplexua da
- ✗ Ez dira monosilaboak, elkarriketa, iritzia eta kontrasteak eskatzen ditu
- ✗ Ez da helburu bat, bide bat da Baina ez da bide huts bat ere: filosofia bat da
- ✗ Ez da gomita abstraktu bat, gutxi definitua
- ✗ Ez da azken emaitza, hausnarketa prozesu bat da
- ✗ Ez da helburu bat, helburu horretara nola heltzen garen baizik

2.3. Helburuak, mugak eta erretornuak

+ Helburuak

Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesuaren helburu orokorra **eremu funtzional horretarako estrategia berri baten oinarriak zehaztea da**. Partaidetza Programaren bitartez egingo den berrikuste hori Araba Erdialdeko etorkizuneko lurralde-estrategia modu irekian eta gardenean berrikusteko aukera gisa proposatzen da. Berrikustea abagune egokia da Arabako lurraldea osatzen duen aniztasunetik ikaskuntzak, esperientziak eta beharrak transmititzeko eta jasotzeko, eta prozesu osoan zehar definituko diren estrategiak kontrastatzeko guneak sortzeko.

+ Mugak

Berrikusteko prozesu hori -bistan denez- ez da hutsetik abiatutakoa: berrikuspena denez, horren **abiapuntua 2004an Araba Erdialderako idatzitako Lurralde Plan Partziala da**. Dokumentuak izan duen hamabost urteko ibilbide horrek hainbat ikaskuntza sortu ditu; garrantzitsua izango da ikaskuntza horiek eta lurralde-baldintzatzaileak eta aurrez zeudenak kontuan hartzea.

Programa Parte-hartzailea diseinatu zenean geneukan osasun-egoera zela eta, parte-hartze hibridoa (presentziala/birtuala) proposatu zen. Parte hartzeko modu hori aukera bat izan zen parte hartzeko metodologiak berritzeko, eta aukera eman zuen hainbat arrazoiengatik lekuz ez aldatzea erabaki zezaketen edo aurrez aurreko espazioetara joaterik ez zuten profilei ahotsa emateko, lurraldearen eskala kontuan hartuta, gainera. 2022an lortutako osasun-errealitate berriak aukera eman du berriz ere aurrez aurreko topaketei pisu

handiagoa emateko, maila digital batek ematen duen aukera paraleloa galdu gabe.

Kontuan hartu behar da **LPParen irismenetik beretik haratago doazen gaiak edo problematikak sor daitezkeela**; ildo horretan, LPPa berrikustea eta prozesu parte-hartzailea Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Aldundiaren eskumenetara mugatuta egongo dira, baita Araba Erdialdearen beraren baldintza fisiko eta sozioekonomikoetara ere.

Bestalde, garrantzitsua da LPPa berrikusteko prozesuaren denbora-mugak aipatzea. Berrikusteko prozesu hori Aurrerapena idaztearekin hasten den denbora-esparru zabal batean garatzen da. Aurrerapenaren dokumentu hori erabiliko da prozesu parte-hartzailerako oinarri gisa (horren laburpena jaso dugu gida honetan).

+ Erretornuak

Erretornuek hainbat dimentsio izan ditzakete: maila anitzeko ikaskuntzak, gobernantzarako eta kultura parte-hartzailerako modu berriak ezartzea, prozesuak komunitatean sortzen duen eragina edo prozesuan zehar sortzen diren dokumentuak kontuan hartuta.

Erretornuen ildo ukigarriago batean, **prozesuaren emaitzak sintetizatu eta LPParen berrikuspena idatzi duen taldera eramango dira; emaitza horiek behin betiko dokumentua idazteko oinarri gisa erabiliko dira**. Era berean, parte-hartzearen etapa bakoitzaren amaieran, metodologia, ondorio garrantzitsuenak eta parte-hartzearen datuak jasoko dituen memoria partzial bat idatziko da.

Nola har dezaket 3. parte?

3.1. Parte hartzeko programaren mugarriak

Parte-hartzearen egiturak bi alderdi ditu: barnekoa; horretan, bilera instituzionalak egingo dira, prozesurako garrantzitsuak diren eragileei eta erakundeei elkarriketak egingo zaizkie; eta, bestetik, **publikoa eta herritar guztiei irekia**, Herritarrek Parte hartzeko Programan zehatz-mehatz kontsultatu daitezkeen hainbat ekintzetan (hemen laburbiltzen direnak) egituratuta.

PARTE HARTZEKO PROGRAMAREKINTZAK


+ Edukiak jasotzen dituen webgunea

Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesu guztia Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren webgunean (www.euskadi.eus) eta Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian (www.irekia.euskadi.eus) jasotzen ari da. Berdin gertatzen eta gertatuko da parte-hartzearekin lotura duten alderdi guztiekin. Horietan jasoko da prozesu parte-hartzailearen mugarri nagusien sekuentzia, LPParen bilakaerari dagokionez gardentasuna eta informazio eguneratua trukatzeko (parte hartzeko programa, parte hartzeko gida, parte hartzearen memoriak eta abar).

**HARTU PARTE www.euskadi.eus
webgunean!**


Herritarren Parte-hartze Programa

Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko
Lurralde-Plan Partzialaren Berrikuspena



Ezquiaga
Arquitectura,
Sociedad y
Territorio S.L.

Araba Erdialdeko LPParen berrikuspenaren Herritarren
Partaidetzarako Programaren azala.



Euskadi.eus webgunean eskuragarri dagoen Herritarrentzako Postontzi Irekiaren pantaila-argazkia

+ Modu digitalean parte hartzea

Parte-hartze digitala etengabe parte hartzeko bitarteko bat ezarriko duen bidea izango da; bide horretatik herritar guztien ekarpenak jaso ahal izango dira. Dinamizatu gabeko eta berezko parte-hartzea izango da.

Parte-hartze digitalak bi tresna izango ditu euskarri. **Lehenengoa irekita egongo da parte hartzeko fase osoan zehar; herritarrei zabalik egongo den postontzia da.** Postontzi honetan ekarpenak, iradokizunak eta proposamenak egin daitezke formatu librean. Aurrez aurreko saioen tresna osagarri gisa, **formulario moduko bat prestatuko da, ekarpenak modu egituratuagoan eta gidatuagoan jasotzea ahalbidetuko duena.** Parte-hartze digitaleko kanaletarako sarbidea ondoren aipatzen diren esteka horien bidez edo goian aipatutako webguneen bidez egin daiteke.

 **Herritarrei zabalik egongo den postontzia**

 **Parte hartzeko formularioa**

Azkenik, gogorarazi behar da sare sozialak ere parte hartze horretan sortzen diren urrats eta eduki guztien berri izateko bidea direla.

#LPP_ArabaErdialdea_aurrerapena bidez sareetan jarrai diezagukezu.

+ Prozesu parte-hartzailearen aurkezpena

Apirilaren 4an eta 5ean aurkezpen instituzionalak egin ziren; horietan, prozesu parte-hartzailearen helburuak eta prozesuari lotutako mugariak zabaldu ziren. Aurkezpen horiek honako herri horietan izan ziren:

> 2022ko apirilaren 4a, astelehena
Vitoria-Gasteiz
Campezo/Kanpezu

> 2022ko apirilaren 5a, asteartea
Agurain/Salvatierra
Legutio
Zuhatsu Kuartango

+ Aurrerapen-dokumentuari buruzko tailer parte-hartzaileak

Tailer parte-hartzaileak herritarrek parte hartzeko biderik garrantzitsuenak dira. **Herritar guztiei irekita dauden tailerrak dira, parte hartzeko edo ekarpenak egiteko interesa duen edozein profilek parte-hartze aktiboko kanal honen bidez parte hartzeko aukera izan dezan.**

5 tailer presentzial egingo dira, Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko kuadrilla bakoitzeko bana. LLParen berrikuspenaren edukiak abstraktuak izan daitezkeela jakitun, ahalegina egiten da saioen dinamikak irisgarriak izan daitezen askotariko herritarrentzat eta kuadrilla bakoitzaren lurralde-errealitatean zentratu daitezen. Lantegi horiek data eta leku hauetan egingo dira:

> 2022ko maiatzaren 17a, asteazkena

Legutio

Kultur Etxea

18:00 - 20:30

> 2022ko maiatzaren 18a, osteguna

Santikurutze Kanpezu

Senpa Gunea

18:00 - 20:30

> 2022ko maiatzaren 19a, asteartea

Zuhatsu Kuartango

Udalbatza-aretoa, Udaletxea

18:00 - 20:30

> 2022ko maiatzaren 24a, asteazkena

Agurain

Manu Yanke aretoa, Udaletxea

18:00 - 20:30

> 2022ko maiatzaren 25a, osteguna

Vitoria-Gasteiz

Erabilera anitzeko areto 1,

Campillo Gizarte Etxea

18:00 - 20:30

Parte hartzeko bide digitalak ere lagungarriak dira aurrez aurreko lantegi horietarako; izan ere, **tailerren zikloa amaitu ondoren ere irekita jarraituko dute**, aurrez aurreko topaketan ondorengo ideia batzuk edo hausnarketak barneratu ondoren ekarpenak egiten jarraitu ahal izateko.

+ Prozesu parte-hartzailearen memoria partziala (I)

Parte-hartze publikoaren etapa amaituta, memoria bat egingo da, orain arte egindako ekintzak jasoko dituen. Memoria horretan metodologia eta parte-hartzeari buruzko datuak jasoko dira eta, gainerako dokumentuak bezala, partekatu egingo da **Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren webgunean** (www.euskadi.eus) eta Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian (www.irekia.euskadi.eus) .

Prozesu parte-hartzaile horretan jasotako ekarpenak aztertuko dira, behin betiko dokumentua aberaste aldera.

+ Kontrasterako tailer parte-hartzaileak

Behin betiko dokumentua idatzi ondoren, **tailer parte-hartzaileen etapa berri bat irekiko da**, horien bidez, eta dokumentua behin betiko onartu aurretik, dokumentuaren xehetasunak ezagutarazteko eta herritarrekin azken kontrastea egiteko. Tailer horien datak aurrerago bakarrik zehaztu ahal izango dira, berrikuspenaren administrazio-etapekin batera doazelako, eta, beraz, unea iristen denean, **erreferentziazko web-orrialdeetan eta sare sozialetan emango dira argitara**; Lurraldearen Facebook-eko eta Twitter-eko profilean.

+ Prozesu parte-hartzailearen memoria partziala idaztea (II)

Aurreko etapan bezala, herritarrek parte hartzeko etapa hau amaitzean, prozesu parte-hartzailearen memoria bat idatziko da, eta, bertan, jarraitutako metodologia eta prozesuan zehar lortutako informazioa jasoko dira.

+ Parte-hartzea ixteko jardunaldia

Parte hartzeko etapa ixteko azken jardunaldi publikoa egingo da. Bertan, prozesu parte-hartzailetik ateratako ondorioak azalduko dira, prozesuaren mugarriei buruzko laburpena egingo da eta prozesuaren parte-hartzearen berri emango da. Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesuan parte hartu duten **herritar-sektoreen parte-hartzeari eta lankidetzari buruzko informazioa eta eskerrak emateko ekitaldia izango da.**

+ Webgunea azken materialekin eguneratzea

Prozesu osoa ixteko, webgunearen azken eguneratzea egingo da eta prozesu parte-hartzailean egindako azken ekintzak ere irauliko dira horretara. Eguneratze horren helburua da Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesuaren erregistro bat geratzea, eta jendearentzat eskuragarri egotea. Material pedagogiko gisa eta planeamenduko tresnak idaztean eta **berrikustean erabaki kolektiboko prozesuek duten garrantziari buruzko sentsibilizazio-material gisa iraungo duen baliabide bat izango da.** Halaber, etorkizunean, baita beste testuinguru batzuetan ere, egin daitezkeen eta antzeko ezaugarriak izan ditzaketen beste prozesu parte-hartzaile batzuetarako gida ere izan daiteke.

+ Azken memoria idaztea

Amaierako memoriak honako hauek jasoko ditu: prozesu parte-hartzailean gauzatutako ekintza guztiak, parte hartzeari buruzko metodologia eta estatistikak, eta prozesuaren barruan garatutako ekintza publiko bakoitzaren eragina. Dokumentu honetan prozesu parte-hartzaile globalaren ebaluazioa ere txertatuko da.

✖ ✖ ✖ ✖ ✖ ✖ ✖
INFORMAZIO GUZTIA
www.euskadi.eus
¡PARTE HARTU!
✖ ✖ ✖ ✖ ✖ ✖ ✖

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

Lurralde Plangintza
EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordea
Hirigintza
Hiri-berrikuntza
Hiri Agenda Bultzatza 2050
Paisala
Euskal Herria Kongresua
Udalplan
Gero Euskadi

Lurralde Planeamendua
Aurkezpena
Lurralde Antolamenduen Gidalerria (LAG)
Lurralde Plan Partzialak (LPP)
Lurralde Plan Sektorialak (LPS)

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala

- + Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala
- Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenera

LPP Araba Erdialdeko
Abian da prozesua. [AURREBAPENAREN DOKUMENTUA](#)
Parte hartu lurraldea@euskadi.eus
Ezagutu indarrean dagoen araudia: [indarrean dagoen LPP \(2005\)](#) eta [LPP-aren 1. Aldaketa \(2018\)](#)

- + Sarrera
- + Zer da Lurralde Plan Partzial bat?
- + Aurrierapena (2022)
- + Hasierako Agindua (2021)
- + Parte-hartze prozesua (2021)
- + LPParen aurrekariak (2019-2020)
- + Deskargak, dokumentuak eta parte-hartze prozesuaren emaitzak (2021-)

Azken aldaketak: 2022/04/27

+ Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren Aldaketa, Jund-8 Bilodako Intermodal logistikoa eraikitzeak.

Euskadi.eus webgunearen pantaila-argazkia

3.2. Non eta noiz?

2022. urteko jardueren eta parte hartzeko bideen laburpena.



Araba Erdialdeko Lurralde Planaren berrikuspenaren aurkezpena

> Vitoria - Gasteiz

Apirilaren 4a, 11:30ean, Eusko Jaurlaritza

> Santikurutze Kanpezu

Apirilaren 4a, 17:00etan, Kultura Etxea

> Agurain

Apirilaren 5a, 9:00etan, Udaletxea

> Legutio

Apirilaren 5a, 11:30ean, Kultura Etxea

> Kuartango

Apirilaren 4a, 17:00etan, Udaletxea



LPParen aurrerapen-dokumentuari buruzko lantegi parte-hartzaileak

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren (LPP) berrikuspena lurralde horretan bizi garen pertsona guztion artean egin nahi dugu. Horretarako, bost lantegi presentzial egingo dira, herritar guztientzat irekiak, Arabako Erdialdeko Eremu Funtzionalak biltzen dituen bost kuadrilletan. Lantegi horien helburua LPPa berrikusteko Aurrerapen-dokumentua ezagutaraztea eta kontrastatzea izango da.

> Legutio

Maiatzaren 17a, 18:00-20:30
Kultura Etxea

> Santikurutze Kanpezu

Maiatzaren 18a, 18:00-20:30
Senpa Gunea

> Zuhatsu Kuartango

Maiatzaren 19a, 18:00-20:30
Udalbatza-aretoa, Udaletxea

> Agurain

Maiatzaren 24a, 18:00-20:30
Manu Yanke Aretoa, Udaletxea

> Vitoria-Gasteiz

Maiatzaren 25a, 18:00-20:30
Erabilera anitzeko areto 1,
Campillo Gizarte Etxea



Parte-hartze digitala irekitzea

Kanal horrek LPPan parte hartzeko eta horri ekarpenak egiteko aukera ematen du modu iraunkorra. Horretarako, bi baliabide jarri dira eskuragarri:

> Herritarrei zabalik egongo den postontzia

Iradokizunak, proposamenak edo iruzkinak formatu librean bidaltzeko kanala. Sartu eta sakatu "Bidali", besterik ez duzu egin beha.

[Parte hartu hemen!](#)

> Parte hartzeko formularioa

Araba Erdialdeko LPParen berrikuspenaren alderdirik garrantzitsuenak ikertzeko aukera emango duen formulario erraza.

[Parte hartu hemen!](#)



"Hirigintza Covid Garaian" topaketaren erronken tailerra, Tafalla (Nafarroa). 2020. Nafarroako Gobernua + Canicca. Iturria: Canicca



Burgi Bizigarriren saio parte-hartzailea, Burgi (Nafarroa). Nafarroako Gobernua + Canicca. 2019. Iturria: Canicca.

Proposamenaren

4. Laburpena

Ezquiaga Arquitectura, Sociedad y Territorio azterlanak, LLPren berrikuspena idatzi duen talde gisa, Aurrerapen dokumentua idatzi du. Aurrerapena Herritarren Partaidetza Programaren lehen fasea garatzeko abiapuntutzat hartzen da. Jarraian, **dokumentu honen laburpena jasotzen da, alderdi esanguratsuenak argitzen saiatuz**, hura ulertzeko eta arreta herritarren partaidetza-prozesura bideratuz. Aurrerapen osoa Eusko Jaurlaritzaren webgunean kontsultatu ahal izango da.

Aurrerapen-dokumentuaren laburpen honetan honako puntu hauek jasotzen dira:

> 4.1. Kontzeptu giltzarri batzuk

> 4.2. Diagnostikoa:
Nola dago Araba Erdialdea gaur egun?

> 4.3. Lurraldearen erronkak:
Zer dugu aurrean?

> 4.4. Lurralde-eredu berriaren estrategiak:
Nola egitea proposatzen dugu?

> 4.5. Alde batera utzi ezin ditugun gaiak, hauek ere lurraldea eraikitzen baitute

4.1. Kontzeptu giltzarri batzuk

LLParen berrikuspeneraren baitan egindako proposamenaren laburpenari ekin aurretik, Aurrerakin-dokumentua eta jarraian aurkeztuko dugun laburpena hobeto ulertzen lagun dezaketen kontzeptu giltzarri batzuk definituko ditugu.

+ *Jasangarritasuna*

Garapenerako modu bat da jasangarritasuna, **oraingo beharrak asetzea ziurtatzen duena, etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe**. Lurralde Plan Partzialaren gisako proiektu bat jasangarria dela diogu, denbora-tarte luze batean zehar eskualdea haztea ahalbidetzen duten ekintzak proposatzen dituelako, baliabideak agortu gabe edo ingurumenari kalterik eragin gabe.

+ *Erresilientzia*

Fisikan, materialek, hautsi gabe, kargak xurgatzeko duten gaitasuna da erresilientzia; psikologian, pertsona batek ezbeharrak gainditzeko duen gaitasuna. Lurralde bat erresilientea dela diogunean zera esan nahi dugu, **gai dela aldaketa naturalei eta gizakiak egindako aldaketei aurre egiteko**, degradatu gabe.

+ *Lurralde adimendunak*

Modu eraginkorrean eta arrazionalen lurraldeko baliabideen balioa nabarmentzeko behar diren ezagutzak sortzeko edo txertatzeko gai diren lurraldeak dira, hala, gizartearen bizikalitatea hobetzen laguntzeko. Hau da, **lurralde adimendunek berrikuntzak eta ezagutza txertatzen dituzte, jasangarritasuna eta erresilientzia lortzeko**.

+ *Ekosistemen zerbitzuak*

Ekosistema gisa funtzionatze hutsagatik **ekosistema batek gizarteari ematen dizkion onura guztiak dira ekosistemen zerbitzuak**. Barne hartzen dituzte prozesu naturalak eta biodibertsitatea kontserbatzea (polinizazioa, lurzoruei mantenugaiak ematea...), aprobetxatzen ditugun lehengaiak (egurra, ura, larreak...), klimaren erregulazioa, higadura eta beste inpaktu batzuk, edota ekosistemaz gozatzea, paisaia gisa edo aisialdirako.

+ *Gizarte-metabolismoa*

Naturaren eta gizartearen artean gertatzen den materialen eta energiaren fluxua da gizarte-metabolismoa. Gizakiak naturako materialen eta energiaren jabe egiten direnean hasten dira gizarteko prozesu metabolikoak. Material eta energia horiek, jakina den moduan, eraldatu egin daitezke eta zirkulatu egin dezakete, kontsumitzeko. Eta, askotan, naturara bertara kanporatzen dira berriro. Prozesu horietako bakoitzaren ingurumen-inpaktua ezberdina da, hauen arabera: prozesuak egiteko modua, prozesuan erabilitako material eta energia kopurua, zer eremutan egiten den, eskura dagoen denbora, edo naturak leheneratzeko duen gaitasuna.

+ *Hiri-metabolismoa*

Abiapuntua ekologian duen kontzeptua da hiri-metabolismoa, hiria ulertzeko modu berri batean oinarritzen dena. Zehazki, hiria ingurumenean txertatutako izate gisa ulertzen du. **Hiri-inguruneak bere inguruarekin dituen energiaren, materiaren edo informazioaren hartu-emanen multzoa da**. Zelula baten metabolismoak bezala funtzionatzen du: baliabide batzuk jasotzen ditu, prozesatu egiten ditu eta produktuak kanporatzen ditu. Baliabideen fluxu hori gainerako ingurunearekin orekan egon dadin lortzea litzateke ideala.

+ ***Ekonomia zirkularra***

Hiri-metabolismoaren kasuan bezala, ekonomia zirkularra lotuta dago ingurunekeo baliabideen hartu-emanen zikloekin eta hondakinen kudeaketarekin. **Lehengaiak ahalik eta modu eraginkorrean aprobetxatzea du oinarrian.** Hala, batak bestearen hondakinak baliabide gisa aprobetxa ditzaketen sektore ekonomikoak lurralde berean ezartzea proposatzen du: adibidez, zerealen uztak ematen duen lastoa energia sortzeko erabil daiteke, biomasaren bidez. Hala, zirkulu interdependente bat eratzen da, garapen ekonomiko jasagarria ahalbidetzen duena, ingurumenarekin integratua.

+ ***Oinarrizko ekonomia***

Ekonomiaren ikuspegi berri bat da oinarrizko ekonomiaren abiapuntua. Ikuspegi berri hori oinarrizko zerbitzu unibertsalak ematen dizkiguten lanetan zentratzen da. **Eguneroko bizimoduaren oinarria osatzen du oinarrizko ekonomiak: herritar guztiek bizitzeko behar dituzten oinarrizko baldintzei egiten die erreferentzia, haien diru-sarrerak eta kokapen geografikoa alde batera utzita.** Barne hartzen ditu azpiegitura materiala –hoditeriak; zerbitzu publikoen banaketa-sistemak, hala nola urarenak edo elektrizitatearenak; hondakinen kudeaketa; deskontaminazioa, etab.– eta zerbitzuen eskaintza –hezkuntza, osasuna, elikagaien hornidura, adinekoen zaintza duina, naturaren zaintza, etab.–.

+ ***Autosufizientzia konektatua***

Dauden baliabideen arabera doitzea eta egokitzea da autosufizientzia konektatua. Ingurune fisikoari dagokionez, **esan nahi du hiri-unitate eta lurralde-unitate bakoitzak (eraikinetik hasi eta eremu funtzionalera) inguruan dituen baliabideekin ase ditzakeela energiaren kontsumoarekin lotutako beharrak eta eskariak**, eta bere kabuz sortzeko gai ez dena baino ez duela hartuko saretik. Plaka fotovoltaikoena da adibide bat, unitate bakoitza autosufizientea izatea ahalbidetzen baitute. Gainera, sare baten bidez konektatuta badaude, soberakinak esporta ditzakete; ekoizpena nahikoa ez denean, berriz, saretik har dezakete. Lotuta dago ekonomia zirkularraren kontzeptuarekin. Izan ere, ekonomia mota honetan berriz aprobetxatzen dira baliabideak.

4.2. Diagnostikoa: Nola dago Araba Erdialdea gaur egun?

Aurrerapenaren proposamena ulertzeko, ezinbestekoa da gaur egun Araba Erdialdea nola dagoen jakitea. Horretarako, jarraian, eremu funtzionaleko diagnostikoaren funtsezko puntu batzuk errepasatuko ditugu.

+ *Vitoria-Gasteiz, hiriburu handia, hirigune ertainen sistema batean*


Gaur egun, Araba Erdialdea tamaina ertaineko kokagune askoz osatuta dago. Vitoria-Gasteizek du biztanleria handiena; hala, Eremu Funtzionaleko bigarren hirigune handienak baino berrogeita hamar aldiz biztanle gehiago ditu. **Udalerri ertainen potentzial estrategikoa nabarmendu** behar da, esaterako, hauena: Iruña Oka, Agurain edo Zuia. Izan ere, **inguruko herrien ardatz gisa joka dezakete**, eta zerbitzuak eta enplegua antolatu.

+ *Demografia dinamikoa*


Dinamismo demografiko handiena duen Euskal Autonomia Erkidegoko eremuetako bat da Araba Erdialdea: bertako jarduera ekonomikoaren eta bizikaltatearen ondorioz, Espainiako beste eremu batzuetako eta atzerriko etorkinak jasotzen ditu, eta fluxu horrek biztanleriaren hazkundea mantentzen du, estatuko joera orokorra biztanleriaren zahartzea eta jaiotza kopuruaren gutxitzea izan arren. Dinamismo horren fokua Vitoria-Gasteiz da, lurraldeko hiriburua. Bertan bizi dira biztanleen % 86. **Abantaila demografiko hori dela eta, lurraldea oso erresiliente da.** Hau da, aldaketa posibleetara egokitzeko potentziala du.

+ *Ekonomia dinamikoa*

Demografikoki dinamikoa izateaz gain, ekonomikoki ere dinamikoa da Araba Erdialdea: EAEko BPGaren % 16 sortzen du, industrian eta bilakaera izaten ari diren sektoreetan oinarrituta, hala nola automobilgintzan. Vitoria-Gasteizen biltzen da Eremu Funtzionaleko enpleguaren % 85, eta presentzia handia dute Administrazio lanpostuek.



1996-2016 aldian eremu funtzionaletan erroldatutakoen aldakuntza. Iturria: Ezquiaga, EUSTAT/LAG datuen arabera



Lanaldi osoko lanpostu baliokideen bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. % 100: 2010-T1eko balioa
Urtaroen eragina eta EUSTATen egutegia zuzenduta

✖ Mendekotasun energetikoa

Petrolioaren kanpoko hornidurarekiko mendekotasun handia du eskualdeak. Urtean 1.700 eta 2.200 eguzki-ordu artean izan arren (EAEko baliorik altuenak, Arabar Errioxaren atzetik), haize askoko eremuak izan arren, basoko biomasa aprobetxatu arren eta zentral hidroelektriko handiak (adibidez, Barazarrekoa) izan arren, iturri horiek ez dira nahikoa eskari energetikoa asetzeko. **Gaur egun, lehen sektoreak eta garraioak petrolioaren % 90eko mendekotasuna dute. Industria-sektoreak eta bizitegi-sektoreak, berriaz, gas naturalaren % 45 eta % 50 arteko mendekotasuna dute.** Bi iturri horiek inportatu egin behar dira.


✖ Furraldearen zatiketa, komunikazio-azpiegitura handien ondorioz

Araba Erdialdeko komunikazio-azpiegiturek egituratzeko eta ardazteko potentzial handia dute, baina, aldi berean, inpaktu handia dute eta lurraldea zatitzen dute. Zerbitzu publikoen sareak osatzen du azpiegitura “gris” hori, hala nola errepideek, zubiek, trenbideek eta industriaren garapen normala ahalbidetzen duten beste instalazio batzuek. **Zerbitzu horien linealtasunak puntu gatazkatsuak sortzen ditu, batez ere, azpiegitura berdearekin (igarobide ekologikoak) gurutzatzean.** Izan ere, paisaiak zatitzen ditu, eta batzuetan iragazkortasunik gabeko puntuak sortzen dira.

4.3. Lurraldearen erronkak: Zer dugu aurrean?

Egindako diagnostikoari esker, eskualdeko **indarguneak eta ahulguneak** detektatu ditugu. Hala, agerian geratu dira etorkizunean aurre egin beharko diegun erronka batzuk:

1. ngurunearen jasangarritasuna: lurralde-oreka
2. Jasangarritasun demografikoa: landa ingurune despopulatzea gelditzea eta biztanleria zahartuari arreta ematea
3. Jasangarritasun ekonomikoa: modernizazioa eta dibertsifikazioa
4. Hiri- eta landa-eremuak biziberritzea
5. Baliabideen kudeaketa jasangarria
6. Mugikortasuna eta logistika



1. Ingurunearen jasangarritasuna: lurralde-oreka

Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialak pertsonak eta ingurumena jartzen ditu erdigunean, eta aldaketa klimatikoaren erronkei aurre egiten dien **lurralde-eredu jasangarriago** baterantz zuzentzen da. Ildo horretan, **lurraldearen behar ekonomikoen eta muga fisikoen arteko oreka bilatzea da erronka**. Hala, lurralde honetako biodibertsitatea handitzea, kontserbatzea eta berritzea da helburua, eta Araba Erdialdeko ondare naturalaren balioa azpimarratzea.

Lurraldearen integrazioaren bidez, hiri-eremuen antolaketaren konplexutasuna ahalik eta handiena izan dadin lortzea da ereduaren erronka, eta lurraldean ahalik eta dibertsitate biologikorik handiena lortzea. Azpiegitura berdea giltzarria da lurraldeko elementu eta funtzio anitzak josteko eta babesteko. **Naturak ematen dizkigun zerbitzuak indartzea lortu nahi dugu, autosufizientzia konektatua eta berriztagarritasunean oinarritutako eredu baten baitan**. Lehenengo sektorean, ohiko nekazaritza eta abeltzaintzatik **nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora** igarotzea litzateke erronka, eta nekazaritza-sektorean gazteak txertatzea sustatzea. Bestetik, Araba Erdialdeko eremu eta funtzioen arteko harreman-egituraren aldaketa handi bat egiteko aukera aztertu behar da, **eskualdeen arteko harremanak eta inguruko lurraldeekiko harremanak indartzeko**. Gaur egun, Vitoria-Gasteizen zentratzen da harreman-egitura hori.

Arlo honetan, **telekomunikazioak indartzea da funtsezko beste alderdi bat, mugikortasunaren alternatiba gisa**. Horretarako, azpiegitura telematikoa garatu behar dira eta biztanleria orokorraren alfabetatze digitala ahalbidetu behar da. Horrek aukera emango luke ekipamenduetara (osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, zerbitzu pribatuak) egiten diren joan-etorri asko ordezkatzeko.



Arabako Lautada. Iturria: Eusko Jaurlaritza



2. Jasangarritasun demografikoa: landa ingurune despopulatzea gelditzea eta biztanleria zahartuari arreta ematea

LPPak bide eman behar dio jasangarritasun demografikoari. Landa-eremuetako despopulatzearen fenomeno estatu osoko erronkarik handienetakoa da, eta lurralde honi ere eragiten dio. **Araba Erdialdeak badu berezitasun bat: bertako hazkunde demografikoa migrazio-fluxuen mendekoa da**, hein handi batean. Hortaz, krisialdi ekonomikoko une jakin batzuetan, biztanleria hazi egin daiteke Ereku Funtzional osoa kontuan hartuta, nahiz eta eremu batzuetan despopulaziorako joera izan.

Despopulatze lokalizaturako joera ahultzea erronka garrantzitsua da. Joera oso argi ikusten da, dagoeneko, landa-eremuko zein hiri-eremuko leku batzuetan (adibidez, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean); leku horietan, gainera, **biztanleria zahartzeko joera ere badago**. Araba Erdialdeko biztanleria hazi egin da azken hamarkadetan, baina zahartu ere bai.

Pertsona guztiek azpiegitura, ondasun eta zerbitzuetarako sarbide unibertsala izatea bermatu behar du LPPak.

Era berean, gainerako eskualdeen autosufizientzia eta pisua irabazteko gaitasuna bermatu behar ditu, oreka demografikoa ahalbidetzeko. Vitoria-Gasteizko ekipamenduen politikek bilakaera behar dute, baina baita landa-eremuetako politikek ere. Garrantzitsua da dagoeneko martxan dauden neurri espezifikoak garatzea, hala nola eskaeraren araberako garraioa, irisgarritasuna bermatzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko.



3. *Jasangarritasun ekonomikoa: modernizazioa eta dibertsifikazioa*

Araba Erdialdea logistikaren arloko eraldaketa-prozesu berritzaile baten buru izan daiteke, eta hori izan behar du xede. Horretarako, **bere gain hartu behar du logistika lurraldean integratzeko eta haren eraginkortasuna hobetzeko erronka, teknologia digitalak erabiliz.** Ezagutza trinkoagoa duen ekonomia deskarbonizatu baterantz igaro behar da. Eta mugikortasun elektrikora eta nekazaritza-ekonomia bideragarri eta osasuntsuago bat berreskuratzerako jo behar da.

Oinarri ekonomikoa erraztea, modernizatzea eta dibertsifikatzea da erronka, Araba Erdialdeko espezializazio adimendunaren bidez kalitatezko enplegua sortzeko.

Robotikaren eta adimen artifizialaren garapena giltzarria da automobilgintzaren eta logistikaren sektorean, beraz, lehenetasuna eman behar zaio.

Araba Erdialdeak kokapen estrategikoa du, Jundizeko geltoki multimodal berriarekin eta Forondako aireportuarekin. Horrek aukera ugari ematen ditu errepide bidezko garraioa arrazionalizatzeko eta sistema logistikoari laguntzeko, ez soilik Arabakoari, baizik eta EAE osoko eta penintsularen iparraldeko sistema logistikoari. Horretarako, eskari berriei doitu behar zaie egungo eredua. Jundizen, Gasteizko aireportuaren (Foronda) eta Arabako Teknologia Parkearen (Miñao) artean planteatutako Berrikuntzaren Arkua indarrean dagoen lurralde-plangintzan agertzen da dagoeneko, eta hainbat proposamen jasotzen ditu, era mugatuagoan garatuko direnak. Trenbidea lurpean sartzeko eta Vitoria-Gasteizen integratzeko proiektuen bidez, eraldaketaren energiak hiriaren barnera zuzentzea, lurralde mailatik hiri mailara pasatuta.

Turismoari dagokionez, haren **onura sozialak eta ekonomikoak eskuratzea da erronka, emisio asko sortu gabe** eta lurraldeko kapitalaren kontserbazioa eta bertan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea kaltetu gabe.



Forondako aireportua (Vitoria-Gasteiz). Iturria: Fly Vitoria



4. Hiri- eta landa-eremuak biziberritzea

Arabako herrixkek eta Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrak errealitate bera partekatzen dute: despopulaziorako joera. Araba Erdialdeko eta Vitoria-Gasteizko biztanleria orokorra, berriz, hazten joan da azken hamarkadetan. Vitoria-Gasteiztik gertu dauden nukleoek dinamika konplexuak dituzte, baina **landa-eremuetan biztanleria irabazteko joera dute herri nagusiek; kokagune txikietan**, berriz, biztanleria galtzen ari dira. Sistema sakabanatu hori ahulezia bat da zerbitzu publikoen prestazioa ziurtatzeko orduan.

Horren aurrean, aldaketa bat egin behar da lurralde-eremuaren oinarrietan.

Bizi-kalitatea eta zerbitzuen eskuragarritasuna Vitoria-Gasteizko egoerara berdintzea da LLParen xedea. Espezializazio altuko zerbitzuak Vitoria-Gasteizen biltzen direla kontuan hartuta, beharrezkoa da mugikortasuna hobetzea, beste eremu batzuetatik zerbitzu horietara iritsi ahal izatea bermatzeko.

Bestetik, LLParen berrikuspenak eta ondorengo udal-planek hiriaren hazkundera mugatzea proposatzen dugu, eta ahaleginak hauetara bideratzea: hiri-berroneratzea, gaur egun dauden ehunak sendotzea eta mugikortasun-eredu berriak ezartzea.



5. Baliabideen kudeaketa jasangarria

Gaur egun, mendekotasun energetiko handia du Araba Erdialdeak. Honako hauek lortzea da LPP berri honen erronka: ahalik eta autosufizientzia energetiko handiena, energia berriztagarrien bidez; uraren autosufizientzia, gainazaleko eta lurpeko ur-eremuen kalitatea zainduta; materialen ahalik eta autosufizientzia handiena, hondakinen fluxuak baliabide bilakatuta; eta nekazaritza ekologikoan ekoiztako gertuko elikagaien ahalik eta autosufizientzia handiena. **Autosufizientzia konektatuari esker, landa eta hiria txertatu behar dira.**

LLParen berrikuspenak tresna bat izan behar du deskarbonizaziorako eta gizarteak egiten duen baliabide naturalen kontsumoarekin lotutako arazoei aurre egiteko. Hainbat erronka jasotzen ditu, esaterako: **ingurumen-inpaktua eta arriskuak gutxituko dituen meategi bat diseinatzea**; hazkunde hedakorrerako joeraren orde, **nukleoan barneko berroneratzea sustatzea; eraikinen berroneratze energetikoa indartzea**; eta Araba Erdialdeak **beste lurralde batzuei ura eta energia berriztagarria hornitu ahal izatea**, kapital naturalean nahi gabeko desorekarik edo galerarik eragin gabe.



Arabako Mendialdea. Iturria: Eusko Jaurilaritza.



6. Mugikortasuna eta logistika

Eskualdeen arteko harremanak handitzea da LPParen erronka nagusietako bat. Hala, eredua aldatu nahi du, Vitoria-Gasteizen zentralizatutako mendekotasun-harreman batzuen ordezt, landa-eremuan elkartruckerako eta lankidetzarako sare batean oinarritutako sistema ezarrit.

Mugikortasun-ereduak aldatzeko gaitasun handia duten eta dagoeneko martxan dauden proiektuak hartu behar ditu abiapuntutzat LPParen proposamenak, hala nola:

- ✚ **Jundizeko geltoki intermodala,** Frantziako iparralderaino doan trenbide-autopistaren ate gisa eta Eremu Funtzionalaren rol logistikoa indartzeko puntu estrategiko gisa, eta abiadura handiko trenbideak (informazio-azterketan).
- ✚ **Vitoria-Gasteizko aireportua garatzea;** EAEko aireportu-sistemaren barruan, Jundizeko terminalarekin tren bidezko lotura izatea onuragarria izan daiteke Vitoria-Gasteizko aireportuarentzat.
- ✚ **Vitoria-Gasteizko garraio publikoaren sarea eta hura indartzeko proiektuak.**
- ✚ **Udalaz gaundiko garraio publikoak** kokaguneen sareak proposatzen duen hierarkiara egokitu behar du, eta **jarraipena eman behar die**, besteak beste, honako formula hauei: **eskaeraren arabeko garraioa** biztanle gutxi dituzten eremuetan.
- ✚ **LPSak Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen gainean egiten dituen proposamenak,** motorizatu gabeko mugikortasunari dagokionez.
- ✚ Mugikortasunaren eta logistikaren esparruaren baitan, **lurraldearen egitura giltzarria izango da ondoko lurraldeekiko**

harremanak hobetzeko. Arreta berezia jarriko diegu hauei: Trebiñuko enklabea, Arabako Mendialdearen eta Arabako Ibarren arteko ekosistemaren fluxuak ulertzeko pieza gisa; Arasur enpresaren jarduketa logistikoak eta Miranda de Ebron garatutako jarduketak; Altsasurekiko lotura eta A1 korridorea. Bestetik, EAEko beste Eremu Funtzional batzuei dagokienez, kontutan hartuko dira Aiararekin (hau ere Arabako Lurralde Historikoan dago) eta mugakide dituen beste Eremu Funtzional batzuekin duen harremana, Arratiarekin duen harremana, Debagoienarekin eta Arrasaterekin duen lotura edota Goierriarekin duen harremana. Hegoaldean, Arabar Errioxarekin duen harremana Toloñoko Mendilerroaren hesiak ahultzen du, eta konexioa aldameneko espazioen bitartez egiten da.



Trenbide-azpiegitura. Iturria: Eusko Jaurilaritza

4.4. Lurralde-eredu berriaren estrategiak: Nola egitea proposatzen dugu?

Adierazitako erronkei aurre egiten saiatzeko, Araba Erdialderako proposatutako ereduak hirigintza osasungarriaren, adimendunaren, erresilientearen eta jasangarriaren printzipioak integratzen ditu; eta hiri-eredu konpaktua, konplexua, metabolikoki eraginkorra eta sozialki kohesionatua sustatzen du. Laburtuz, lurralde-ereduaren proposamena ildo hauen inguruan antolatzen da:

+ Ingurumen-oreka. Lurzorua antolatzeko proposamenak azpiegitura berde egituratua izango du, nekazaritza-balio altueneko lurzoruak errespetatu eta lurzoruaren urbanizazio-aukerak mugatzeaz gain. Mugikortasun-eredu jasangarria bultzatuz, proposatutako ereduak giza jardueren ingurumen-inpaktua mugatzen lagunduko du.

+ Agertoki metabolikoa. Euskadiko Energia Estrategia 2030ekin bat datorren baliabide energetikoen erabileraren alternatiba bat aukeratuta, eta baliabideak erabiltzean pixkana eraginkortasuna hobetuz. Plana pauso bat baino ez da ekoizpenaren deskarbonizazio osoa lortzeko bidean, baina bat dator Europak markatutako printzipioekin.

+ Ekitatea eta egituratze soziala. Batez ere hiri-eremu zaurgarrienen hiri-berroneratzean zentratzen den hiri-ereduari aplikatzen zaio, baita landa-eremuen biziberritzeari ere. Eta ikuspegi soziala kontuan hartzen duten gobernantza-neurriak proposatzen ditu.

+ Informazioan eta ezagutzan oinarritutako ekonomia. Arlo honetan jarduera ekonomikoen digitalizazioa sektore bat izango da baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko eta lurraldearen gaineko eragina murrizteko, baina, aldi berean, halabeharrezkoa izango da jarduera aurreratuekiko mendekotasun handia duen ekonomiaren bilakaera arrakastatsua ziurtatzeko, hala nola automobilgintzarena. Ildo horretatik, ekonomia horiek epe laburrean sakonki aldatzera deituta daude.

Zehatzago, Araba Erdialdeko lurraldea berrantolatzeko proposatzen diren estrategia orokorrak gai hauetan labur daitezke:

1. Lurralde-oreka: hiriak hiriaren antz handiagoa, eta landak landaren antz handiagoa
2. Lehiakortasunerako estrategiak
3. Estrategia berdea: ekosistemak konektatzea
4. Hiriko eta landako habitata: berroneratzea, hazkundearen kontrola eta pertsona guztientzako zerbitzuak
5. Paisaia, ondare kulturala eta naturala, eta baliabide turistikoak
6. Baliabideen kudeaketa jasangarria
7. Mugikortasuna, logistika eta komunikazioak
8. Lurralde arteko harremana



1. Lurralde-oreka: hiriak hiriaren antz handiagoa, eta landak landaren antz handiagoa

Egungo LLParen hiri-hazkunde hedakorren eredua aldatu, eta lurralde-oreka berri baterantz bideratzea proposatzen da, hiriak hiriaren antz handiagoa izan dezan, eta landak landarena. Horrek esan nahi du bakoitzaren ezaugarriak ahalik eta gehien aprobetxatzen direla, eta modu osagarrian funtzionatzen dutela. Landaren eta hiriaren arteko harremana berriz egokitzean datza, oso berritzailea baina, aldi berean, ezaguna den ideia batetik abiatuta: **baliabide mugatuak eta behar ekonomikoak ditugu**, eta bi faktore horien adiskidetzan dago lurralde-antolamenduaren eta lurralde-orekaren giltzarria.

Tradizioz, baliabideak eskuratzeko erabili izan dituzte hiriek landa-eremuko ekosistemak eta ekosistema naturalak eta, aldi berean, hondakinak prozesatzeko “giltzurrun” gisa. Ondorioz, hiri-eremuetan sortutako hondakinek fluxuak eta kutsadura jaso behar izan dituzte landa-eremuek. Estrategia berriak landa-hiria binomioaren harremana aldatu behar du, eta **lurraldearen karga-gaitasuna gaingarritu ez duen oreka berri bat bilatu behar du**. Horretarako, garrantzi handiagoa eman behar zaie landa-eremuko eta eremu naturaleko beharrei. Adibidez, ingurumena zaintzen duen nekazaritza birsortzaile baterantzko eraldaketa progresiboaren ondorioz nekazaritzaren produktibitatean izandako mugak konpentsatu egin behar dira, baita modu materialean ere. Balioa ematearen bidez, jasangarritasun demografikoa ere bultzatu nahi da, landa-eremuko bizimodua ekonomikoki dinamikoagoa eta erakargarriagoa bilakatuta.

Hiriak hiriaren antz handiagoa izango du. Horretarako, hiri-berroneratzearen aldeko apustu irmoa egingo da. Hala, **hiri-eredu konpaktua**, antolaketa konplexukoa, eraginkorra eta sozialki kohesionatua indartuko da, Espainiako eta EAEko Hiri Agenden zehaztapenekin bat etorritik, baita 2019ko LAGEkin ere.



2. Lehiakortasunerako estrategiak

Lurraldeen artean ekonomikoki lehiatzeko egungo estrategia baliabide naturaletan dago oinarrituta (lurzorua, energia, materialak...), eta hori da ingurumen-jasangarritasunik ez izatearen arrazoi nagusia. Baliabideen kontsumoa murrizteko, “ekonomiaren desmaterializazioa” egin behar da, hau da, eraginkortasuna handitu behar da baliabideen elkartrukeak murrizteko eta inguruneak desegin ditzakeen baino hondakin gehiago ez sortzeko.

Vitoria-Gasteiz eta nolabaiteko garrantzia duten beste hiri-nukleo batzuk motor ekonomikoak izango dira. Hala, prestakuntza maila altua duten pertsonen kopurua eta aniztasuna areagotzean oinarrituko da lehiatzeko estrategiaren zatirik handiena. Ekonomia digitalari, oinarritzeko funtsezko zerbitzuen hornikuntzaren ekonomia gehituko zaio. **Landa-eremuko ekosistemen eta ekosistema naturalen funtzioa baliabideak eta elikagaiak hornitzea izango da, jasangarritasun-irizpideekin eta biodibertsitatea zainduz. Oinarritzeko zerbitzu unibertsalen** hedapenean eta aberastasun komunitarioa sortzean oinarrituko litzateke lurralde-matrizean garatu beharreko ekonomia, eta, hala dagokionean, landa-eremuko ekosistemen eta ekosistema naturalen antolaketa mantentzea eta berritzea izango luke helburu.

LLParen berrikuspenerak honakoak integratu beharko ditu:

- ✱ Informazioan eta ezagutzan oinarritutako agertoki ekonomikoa.
- ✱ Lurralde-eredu berri bat, oreka berri bat ezarriko duena hiri-nukleoaren eta haien arteko harremanen konplexuen artean.
- ✱ Baliabideen eta hondakinen kudeaketa ulertzeko modu berri bat, eraginkortasunean oinarrituta.
- ✱ Nahasketa sozialak sortuko dituen agertoki berri bat, kohesio sozialerako oinarri izango dena.



3. Estrategia berdea: ekosistemak konektatzea

LPP berriaren estrategia berdeak Araba Erdialdeko aberastasun biologikoa handitzearen aldeko apustua egiten du eta egungo bereizketa funtzionala murriztea du helburu nagusi. Horretarako, **galdutako konektagarritasun ekologikoa** berreskuratu nahi du; hauen ondorioz galdu da: ohiko nekazaritza, azpiegituren arloko oztopoak (esaterako, autopistak eta trenbideak), meategi eta hondakindegiz zaharrak behar adina lehengoratu ez izana, ur-lasterren kutsadura, etab.

Hainbat motatako basoz, landaz eta larrez, ur-eremuz, eremu hezez eta hiriko sare berde konektatuz osatutako mosaiko bat eratzearen aldeko apustua egiten da. Hala, ondare naturala eta kulturala babestu nahi dira **ekologiaren, paisaiaren eta nekazaritzaren arloko balio altua duten lurrak zonakatzearen bidez**. LAGekin bat etorriz, helburu hauek proposatzen dira lurzoru urbanizaezinetarako:


- ✚ Araba Erdialdeko lurraldeko geodibertsitate-balioak, biodibertsitate-balioak, balio ekologikoak, kulturalak eta paisaia-balioak kontserbatzea eta aktibatzea.
- ✚ Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren ekoizpenerako oinarri diren lurzoruak kontserbatzea eta nekazaritza-jarduera indartzea, gertuko elikagai osasungarriak ekoizten dituelako.

- ✚ Aldaketa klimatikora egokitzeko orduan azpiegitura berdeak eta urdinak eta naturan oinarritutako soluzioek duten papera nabarmentzea.
- ✚ Hirien birnaturalizazioaren aldeko apustua lurralde mailako azpiegitura berde baten ideia berran integratzea.

Azpiegitura berdea faktore giltzarria da lurralde-eredu berrian, ingurumen-unitateak haien artean konektatzeko eta bereizketari irtenbidea emateko. Hala, arreta berezia jarri behar da azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren azterketan. Lehentasuna emango zaio Arabako Lautada osatzen eta inguratzen duten naturaguneen konektibitate ekologikoa bermatzeari eta Vitoria-Gasteizko Eratzun Berdea indartzeari. Zentzu horretan, gainera, Araba Erdialdeak funtsezko papera du ekialde-mendebaldeko jarraitutasun ekologikoan, Nafarroa iparraldeko eta Burgos iparraldeko lurralde mugakideekin. Jarraitutasun hori hiru ardatzen bidez adierazten da. Eskema honetan sinplifikatu ditugu.

Azkenik, aipatzekoa da sare hau elementu hauen arabera egituratzen dela:

- ✚ Ingurumen-balioak direla eta eremu babestuen.
- ✚ Natura-intereseko beste espazio multifuntzional batzuk.
- ✚ Sare hidrografikoa (sare urdina).
- ✚ Igarobide ekologikoak.



Aurrerapen-dokumentuaren kartografia. Azpiegitura Berdearen eskema. Iturria: LPParen aurrerapena



4. Hiriko eta landako habitata: berroneratzea, hazkundearen kontrola eta pertsona guztientzako zerbitzuak

Hiri-habitataren gaineko proposamenek **berroneratzeari eta barrurantzko hazkundeari** ematen diote lehentasuna, lurzoru berria urbanizatzearen aurretik. Hirigintza mota berri honek proposamen hauek egiten ditu: espazio publiko funtzional eta atsegin bat eraikitzea; hiri berrantolatzea eta bizileku-erabilerak, merkataritza-erabilerak edo zerbitzu publikoen erabilerak nahastea; berdeguneak birnaturalizatzea eta birgaitzea; ingurunearekin integratuta dagoen hiri-metabolismoa eta eraikuntza jasangarria lortzea; ondare arkitektonikoa eta kulturala errespetatzea; kalitatezko ekipamenduak bermatzea; eta kohesio soziala sustatzea.

Vitoria-Gasteizko hiriaren eremuan, ekintza hauek proposatzen dira:

+ Vitoria- Gasteizko erdigunea

leheneratzea. Erdigune hustua biztanle gaztez eta jardueraz betetzea; espazio publikoaren banaketa orekatzea, oinezkoen, bizikleten eta garraio publikoaren mesedetan; mugikortasun aktiboari eta osasungarriari mesede egitea; eta egoera txarrean dauden etxebizitzak eta eraikinak leheneratzea, jasangarritasun-irizpide berrien arabera.

+ Auzo degradatuak eta zaurgarriak

birgaitzea. Eraikuntza-estandar baxuak dituzten eremuak birgaitzea, biztanle gazteak eta erosteko ahalmen handiagoa duten familia-nukleoak iristea sustatzeko eta, hala, errenten aniztasuna bermatzeko. Auzoetan berdintasun gehiago egotea eta gizarte-ongizate handiagoa izatea eragiten du horrek.

+ Vitoria-Gasteizko kanpoaldeko

dentsitatea berriro handitzea. Lurzorua ondasun urria da, eta ahalik eta eraginkortasun handienaz eraldatu behar

da. Hori dela eta, gelditu egin behar da hiriburuaren hazkundera, eta alderantzikatu egin behar da auzo berrien hedapen-eredua.

+ Bizilekuen kuantifikazioa:

Vitoria-Gasteizko etxebizitza-beharrak ez dira oso altuak, eremu batzuk despulatze-prozesuan baitaude, baina beharrezkoa da zenbat etxebizitza huts eta proiektatu dauden eskuragarri jakitea, etorkizunean gerta daitezkeen biztanleriaren hazkundeak aurreikusteko eta haien beharrei erantzun ahal izateko, zerbitzu publikoei dagokienez.

+ Jarduera ekonomikoko lurzorua:

oinarri ekonomikoa modernizatzea eta dibertsifikatzea, kalitatezko enplegua sortzeko. Eredu logistiko berri bat jomuga izatea, honakoak lortuko dituen: ahalik eta lurzoru gutxien kontsumitzea, lurraldean metabolikoki integratzea eta eraginkortasuna drastikoki hobetzea, teknologia digitalak erabilita.

> **Automobilgintza-industriaren** egitasmoak, logistika eta instituzioen egitasmoak bateratuta, robotikaren industria eta hari laguntzen dion adimen artifizialaren sektorea bultzatzea proposatzen da. Horren bidez enplegu arloko helburuak lortzea aurreikusten da, beste nukleo txikiago batzuetatik lan digitala egitea sustatuz, Vitoria-Gasteizera joan beharrik gabe. Horrek hiri-nukleoaren garapen ekonomiko ekitatiboagoa ahalbidetuko luke, eta beharrezkoa ez den mugikortasuna murriztea, azken hori kaltegarria baita ingurumenerako. Eredua aldatzearekin batera, industrialdeak berregituratzeko plan bat proposatzen da.

> **Berrikuntza Arkua:** Aurreikusita dagoen Jundizeko geltoki intermodala, aireportua eta Arabako Teknologia Parkea (Miñao) lotzen dituen bananaren forma aldatzea proposatzen da, eta geltokia eta

aireportua konektatuko dituen beste forma bat erabiltzea. Dagoeneko eraikita dauden industrialdeetan garatzea proposatzen da, baina moldatu egin beharko dira, ekonomia berriaren antolaketaren arabera.

- Hiri-logistika birpentsatzea, merkataritza elektronikoaren ondorioz espazio publikoan gertatutako husteari eta pobretzeari aurre egiteko.

Landa-eremuko habitatari dagokionez, estrategikoa izango da zentro alternatiboak bilatzea eta jarduera batzuk Vitoria-Gasteiztik eta haren gertuko ingurunetik deszentralizatzea; izan ere, eremu horretan pilatzen da jardueraren zatirik handiena eta, agerikoa den moduan, biztanleria eta enplegu gehiena. Bestetik, landa-eremuko kokaguneak mantentzeko eta biziberritzeko, nekazaritza-eredu berri bateranzko trantsizioa egitea proposatzen da. Enplegua eta bizi-baldintzak hobetzea ahalbidetuko du horrek. Alderdi hori giltzarria da aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan ere. Bizi-baldintzak hobetzearen barruan, arreta berezia eskaini behar zaio etxebizitzaren eta ekipamenduen arloko neurriak babesteari. Hala, pertsona guztiek distantzia nahiko labur batean oinarritzeko behar guztiak ase ahal izatea ahalbidetu behar da. Vitoria-Gasteizen kasuan bezala, Arabako herrixkek ere leheneratzera bideratuko dituzte eraldaketaren arloko ahalegin nagusiak, eta mugatu egingo dute hedapena.

Hirigintzako ahalegina leheneratzean zentratu ahal izateko, LAGEk figura berri bat sortu dute, hiri-hazkundearen perimetroa: hazteko gaitasuna duten udalerrietan gehienez okupa daitekeen lurzorua da, gertukoa eta jasangarria den hirigintzaren irizpideak kontuan hartuta (jarraitutasuna, konpaktua izatea, ingurune naturalaren zaintza, etab.). Figura berri hau bereziki baliagarria da jarduera ekonomikoaren pakete handientzat, eta eragin argia du lurraldean.



5. Paisaia, ondare kulturala eta naturala, eta baliabide turistikoak

Paisaiaren ikuskera garaikidea naturatik harago doa, eta barne hartzen du gizakiak naturan duen eragina ere. Kontuan hartu behar dira paisaia ezin ederragoak, hobekuntzarik behar ez dutenak, baita hobekuntzak behar dituztenak ere: kanpoaldeak, industrialdeak, abandonatutako eremuak, azpiegiturak, etab. Testuinguru horretan, **nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaien balioa handitzea proposatzen da, beste helburu batzuen artean.**

Paisaiaren arloko erabakiek Paisaiaren Katalogoko edukiak garatuko dituzte. Katalogo horrek paisaiaren kalitateari buruzko helburu batzuk ezartzen ditu, baita neurri eta ekintza multzo bat ere. Katalogoa xehetasunez jarraitzeak aukera emango du etorkizuneko udal-planei laguntzeko.

Ondare kulturala eta naturala osatzen duten elementu adierazgarriak identifikatuko dira. **Baliabide turistikoen tratamenduan, kontuan hartu behar da hiri-baliabideak zein landa-baliabideak daudela ingurunean, eta sinergiak sor daitezke haiek erabiltzean.**



Aurrerapen-dokumentuaren kartografia. Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalen proposatutako kokaguneen hierarkia. Iturria: LPParen aurrerapena



6. Baliabideen kudeaketa jasangarria

Baliabideen kudeaketaren arloan, jarraibide asko ematen dituzte plan sektorialek, lurralde mailako estrategiek eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek. Zentzu horretan, koordinatzea da LPPren lana, uraren kudeaketarekin, energiarekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako gaiei arreta jarrita.

- + LPPak aintzat hartzen du **uraren kudeaketa jasangarria, baliabide gisa**, baliabide hidriko guztien egoera ekologiko ona mantendu edo berreskuratzeke. Hirigintza arloko leheneratze- eta berregituratze-politikak ezarri behar ditu LPPak, ibaietako eta ibilguetako espazioak berreskuratzea ahalbidetuko dutenak eta, lurralde mailan, lurpeko urak babestea ahalbidetuko dutenak. LPP berriak lehendik dauden azpiegituretan hornidura- eta saneamendu-sareak hobetzeko ezarrita dauden neurriak eranstean ditu. Hala, jasangarritasun-irizpideak sustatu nahi ditu ura erabiltzean eta hondakin-urak isurtzean. Bestetik, Eremu Funtzionalak ura hornitzeko duen gaitasuna ebaluatu da, 2027ari begira.
- + Energiari dagokionez, **kontsumo energetikoa murriztearen aldeko apustua egiten du LPPak, batez ere, berriztagarria ez den energiaren kontsumoa**. Hala, iturri berriztagarrien bidez sortutako energia elektrikoa kontsumitzea indartu nahi du, helburu hauetara hurbiltzeko: deskarbonizazioa, autosufizientzia energetikoa eta negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea. Horretarako, autosufizientzia energetikora eta negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketara gerturatzea proposatzen da, energiaren kudeaketa deszentralizatuaren bidez. Kudeaketa horrek kontuan hartu beharko ditu Arabako maila ugaritako gobernantza-ehun aberatsa, plan anitzak

(adibidez, Araban Energia Berriztagarriak Sustatzeko eta Garatzeko Plana 2010-2020 eta Energia Berriztagarrien LPSaren gainean egiten ari diren berrikuspena), Enargi Araba SA enpresa publikoaren sorrera edota EKIOLA kooperatiba energetikoen proiektua. Ekoizpena eta kontsumoa kudeatzeko, irabazi-asmorik gabeko energia-bankua eratzea proposatzen da, lurralde-eremu bakoitzean energia berriztagarria sortu, banatu eta kontsumitzeko katea errazago kudea dadin. Proposatzen den sistema energetikoak autokontsumorako eta sorrera banaturako neurriak garatuko ditu, eta helburu horrekin, baliabide energetiko berriztagarriak aprobetxatuko dira: eguzki-energia, energia hidraulikoa, biomasa, haizearen energia, energia geotermikoa, hondakin organikoaren digestio anaerobikoa, etab.

- + Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 eta Foru Aldundiaren plan sektoriala erreferentziak dira ekonomia zirkularraren arloan egin beharreko etorkizuneko ekintzetarako. Ekonomia Zirkularrerako Estrategiak ezartzen dituen helburuen artean, produktibitate materiala eta material zirkularraren erabilera-tasa % 30 haztea dago, eta hondakinen sorrera-tasa % 30 murriztea. Programatutako ekintzen artean, LPPrako esanguratsuenak direnak lotuta daude sistemen hobekuntzarekin, hondakinen **koordinaziorako organo arabar batekin eta azpiegiturak hobetu eta azpiegitura berriak sortzearekin**: garbiguneak, berrerabilguneak, konpostatze-plantak, puntu garbiak, TMB (tratamendu mekaniko-biologikoa) plantetan hobekuntzak, gaikako bilketa-ereduak berritzea, etab. Bestetik, lurzorua baliabide birziklagarritzat hartzen du LPPak, hirigintza arloko birgaitzeko, leheneratzeko eta berritzeko lanen bidez; kutsatzaileen presentziak baldintzatu egin ditzakete lan horiek.




7. Mugikortasuna, logistika eta komunikazioak

LPPak, kasu honetan gainerako plan sektorialekin lerrokatuta, erabateko aldaketa eragin nahi du mugikortasuneko eredu tradizionaletan. Erregai fosilen kontsumoa murriztuko duen sistema bat sustatu nahi da, sare telematiko eraginkor bat ezarrita. Horretarako, garraibide jasangarriak sustatzearekin lotura zuzena duten jarduketak lehenetsi behar dira, hala nola bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak garatzea, garraio publikoa sustatzea, ibilgailu pribatu bidezko mugikortasuna murriztea, egungo garraio publikoaren geltokietan nodo intermodalak garatzea, etab.

Errepideko, bizikleten eta oinezkoen mugikortasuna:

LPPak mugikortasun multimodaleko sare bat bultzatzea du helburu, **trafikoa eta abiadura baxuko erabilera ez-motorizatuak partekatuko dituen**. Sare geldo bat, ibilbide seguruak ahalbidetuko dituena, ez soilik hirian, baizik eta gertu dauden nukleoen arteko eguneroko ibilbideetan. Oinez edo bizikletaz doazen pertsonentzat kalitatezko sarea izatea bilatzen da, zuhaitzak eta landaredia jarrita. Mugikortasun-eredua aldatzeko helburuaren baitan, garrantzi berezia du bizikleten sarea indartzea.



Tren-mugikortasuna:

Araba Erdialdeko **hiriarteko garraioa egituratzeko orduan, trenbidea funtsezko elementua izatea** nahi du LPPak.

Horretarako, une honetan dauden trenbide-loturak indartu nahi ditu, eta gainerako mugikortasun jasangarriko moduekin integratu nahi du trena. Ildo horretatik, beste gauza batzuen artean, honako hauek proposatzen ditu Planak: EAEko abiadura handiko trenbidearen lanak amaitzea; Burgos eta Vitoria-Gasteizen arteko trenbide bidezko lotura gauzatzea; Vitoria-Gasteizko etorkizuneko geltokiaren izaera intermodala indartzea; Vitoria-Gasteiz eta Iruñearen arteko tren bidezko lotura indartzea; trenbide-pasaguneak kentzea; eta hainbat garraibide-sistematatik etorkizuneko Jundizeko geltoki intermodalerako irisgarritasuna handitzea.

Zentzu horretan, LPPak bat egiten du EAEk trenbidearen bidez merkantzien mugikortasuna handitzeko duen helburuarekin, eta LAGek ezarritakoa garatzen du Araba Erdialdea nodo logistikoa izan dadin merkantzien nazioarteko garraioko. Hala, Vitoria-Gasteizko plataforma logistikoa intermodalak, Jundizekoak (eta aireportuarekin lotzeko aukerak), garrantzi berezia du.

Bestetik, hainbat udalerritan **garraibide ezberdinak lotzeko guneak sortzea proposatzen da**. Gure horiek, aldi berean, osatu egingo lituzkete eskualdeko nukleo nagusietan garraio publikoaren sarea (errepidekoa) osatzeko sortuko diren hiri-zentraltasun nodoak.

Aurrerapenaren informazio kartografia.
Planifikatutako trenbide-azpiegiturarako jarduketak.
Iturria: Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko LLParen berrikuspenerako aztemalak eta diagnostikoa, eta beste iturri garrantzitsu batzuk.



8. Lurralde arteko harremana

Araba Erdialdea ez da uharte bat: eskualdearen funtzionamendu ona eta garapena, neurri handi batean, inguru lurraldeekin duen harremanaren baitakoa da, hala nola Nafarroarekin, Gaztela eta Leonekin edota EAEko gainerako eskualdeekin.

Nafarroarekin duen harremanari dagokionez, **Altsasuren bidezko lotura indartuko da**, Vitoria-Gasteiz eta Iruñea arteko azpiegitura-korridorea hobetuko da, eta bien arteko naturaguneen babesa garatuko da.

Gaztela eta Leonekiko loturari dagokionez, **Trebiñuko Konderriarekin duen lotura da gai esanguratsuenetako bat**, enklabea delako. Lotura hori, dagoeneko, agerikoa da hainbat arlotan, hala nola zerbitzuen prestazioan edota jarraipen naturalen antolaketan.

4.5. Alde batera utzi ezin ditugun gaiak, hauek ere lurraldea eraikitzen baitute

Amaitzeko, Araba Erdialdeko LLParen berrikuspenaren estrategia osoa zeharkatzen duten gai batzuk deskribatuko ditugu:

- + Genero-ikuspegia
- + Aldaketa klimatikoa
- + Osasuna
- + Euskara



Genero-ikuspegia

Hirigintza-plangintza inklusiboa bultzatuko da, generoaren arloan izan dezakeen inpaktua kontuan hartuko dutena. Horretarako, aintzat hartuko dira erabileren lokalizazioa, espazio publikoaren antolaketa edo mugikortasun-sistemekiko harremana. **Begirada inklusiboa txertatzeko, kontuan hartu behar dira haurren, adinekoen, aniztasun funtzionala duten pertsonen edo beste baldintza batzuk dituzten pertsonen behar espezifikoak –ere–.** Herritar guztien eguneroko bizi-kalitatea hobetzen laguntzea da lurralde eta hiri mailako plangintzaren azken helburua, eta hori modu eraginkorrean egitea. Berrikuspen honetan, Europak eta estatuak alderdi honen gainean emandako gidalerroekin bat etortzen saiatuko gara, baita Hiri Agenda 2030ekin eta Hiri Agenda Bultzatu 2050ekin ere.



Aldaketa klimatikora egokitzea

Aldaketa klimatikora egokitzeko neurriak proposatzen dira: gainazal iragazkorra handitzea; gainazalean eta altueran itzala sortuko duen sare berde bat ezartzea; uholdeen hazkundea prebenitzeko eta haietara egokitzeko neurriak ezartzea; bisita daitezkeen berdeguneak sustatzea, “bero-uhartearen” efektua arintzeko; eta, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoretik, agrodibertsitatera gerturatzeko egokitze-prozesu bat proposatzen da.

Aldaketa klimatikoa murrizteko, energia kontsumitzen duten sektore guztietan eragin behar da (garraioa, energia-sektorea eta industria) eta CO2 isurbideen gaitasuna handitu behar da. Era berean, energia ez-berriztagarrien kontsumoa murriztu behar da, eta energia elektrikoa kanalizatu behar da, energia-kontsumoaren iturri nagusi gisa. Azpiegitura berdeak ere funtzio garrantzitsua izan dezake emisioak murrizteko orduan.

Etorkizun hurbilean, Vitoria-Gasteiz da Arabako eremurik zaurgarriena, uholdeak eta bero-boladak jasateko arriskua baitu. Gainera, mendebaldeko eremu osoan, zaurgarritasun hidrikoa dute, hazi egin baita lehorteen maiztasuna.



Euskara

Hizkuntza-inpaktuaren azterketa egingo du LPPak, xede duen lurralde eremuan euskararen erabilera normalizatzeko moduak errazteko.



Osasuna

Bizitza zer lurralde-eredutan garatzen den faktore erabakigarria da herritarren osasunean. Hori dela eta, Araba Erdialdeko herritarren etorkizuneko osasunean eragin positiboa izango duen eredu bat proposatzen du LPPak, neurri hauen bidez:

- + Hiri-ehun konpaktuak sustatzea eta landa-eremuko nukleoak leheneratzea, **mugikortasun motorizatuarekiko mendekotasuna murrizteko.**
- + Azpiegitura berde irisgarri bat antolatzea, oinezkoen eta **bizikleten mugikortasun bigunak indartuko dituen eta naturara modu osasungarrian iristea erraztuko duena.**
- + Herritarrek kutsadura-iturriekiko duten esposizioa mugatzea.
- + Mugikortasun aktiboa eta mugikortasun urriko pertsonen mesede egiten dieten neurriak sustatzea.
- + Gertu dauden zerbitzuetara garraio motorizaturik gabe iristea errazten duten erabilera mistoak indartzea.
- + Gizarte-kohesioa sustatzea.
- + Nekazaritzako ekoizpen ekologikoa indartzea.
- + Hiriko bero-uharteen efektuaren aurka eta aldaketa klimatikoak giza osasunean izan ditzakeen eragin kaltegarrien aurka borroka egitea.



Erabilitako irudiak:
Eusko Jaurlaritza, Ezquiaga y Canicca

Erabilitako kartografia:
Aurrerapen-dokumentua eta diagnostiko-dokumentua

Erabilitako ikonoak:
thenounproject
(IconMark, Mello, Nithinan Tatal, Made, pongsakorn, Lutfi Gani Al, Tippawan Soo, Adrien Coquet,
Becris, Nikita Kozin, Linector, Les vieux garçons, Musmellow, N. Style, Diego Naive, Eucalyp)



PARTE HARTU!